

## NAFARROAKO 4X4 SOKATIRA TXAPELKETA 2024

Apirilaren 14tik maiatzaren 18ra Nafarroako goma gaineko 4x4 Sokatira Txapelketa jokatu da.

### KATEGORIAK ETA PISUAK

**Absolutua Gizonezkoak (320 eta 300 kilo)**  
**Absolutua Emakumezkoak (255 eta 240 kilo)**  
**Absolutua Mistoa (280 Kilo)**  
**20 urte azpikoak (280 Kilo)**  
**Kadeteak (280 Kilo)**

### EGUTEGIA:

EGUNA	ORDUA	LEKUA	PISUAK
Apirilak 14	11:30	<b>Doneztebe</b> (Ezkurra pilotalekua)	Gizonezkoak 320 – 1J Emakumezkoak 255 – 1J 20 urtez azpikoak 280 – 1J
Apirilak 20	17:00	<b>Barasoain</b>	Gizonezkoak 320 – 2J Emakumezkoak 255 – 2J 20 urtez azpikoak 280 – 2J
Apirilak 27	17:00	<b>Elizondo</b> (Baztan pilotalekua)	Mistoak 280 – Jardunaldi bakarra Kadeteak 280 – 1J 20 urtez azpikoak 280 – 3J
Maiatzak 11	17:00	<b>Antsoain</b> (Kiroldegiko frontoia)	Gizonezkoak 300 – Jardunaldi bakarra (1.zatia) Emakumezkoak 240 – Jardunaldi bakarra (1.zatia) Kadeteak 280 – 1J
Maiatzak 18	17:00	<b>Txantrea</b>	Gizonezkoak 300 – Jardunaldi bakarra (2.zatia) Emakumezkoak 240 – Jardunaldi bakarra (2.zatia) Kadeteak 280 – 2J

### PARTE HARTUKO DUTEN TALDEAK:

**Gizonezkoak 320 kilo:** Amaiur, Berriozar, Beti-Gazte, Txantrea  
**Gizonezkoak 300 kilo:** Amaiur, Antsoain A, Antsoain B, Berriozar A, Berriozar B, Beti-Gazte, Txantrea A, Txantrea B  
**Emakumezkoak 255 kilo:** Amaiur, Antsoain, Araxes A, Araxes B, Berriozar, Beti-Gazte, Txantrea  
**Emakumezkoak 240 kilo:** Amaiur, Antsoain A, Antsoain B, Araxes, Berriozar A, Berriozar B, Beti-Gazte, Txantrea  
**Mistoa 280 kilo:** Amaiur A, Amaiur B, Antsoain, Araxes A, Araxes B, Berriozar A, Berriozar B, Beti-Gazte, Txantrea  
**20 urte azpikoak 280 kilo:** Amaiur, Antsoain A, Antsoain B, Antsoain C, Berriozar A, Berriozar B  
**Kadeteak 280 kilo:** Antsoain A, Antsoain B, Araxes, Berriozar A, Berriozar B, Paz De Ziganda A, Paz De Ziganda B

## **JOKATZEKO SISTEMA:**

### **➔ ABSOLUTUA GIZONEZKOAK 320 kilo eta EMAKUMEZKOAK 255 kilo:**

Bi jardunaldi jokatu dira liga sistema bidez. Bi jardunaldietako puntuen baturak erabakiko du azken sailkapena. Puntuen baturan berdinketarik badago, taldeen falta kopuruak hartuko dira konturan eta berdinketak jarraituz gero, taldeen pisua.

### **➔ ABSOLUTUA GIZONEZKOAK 300 kilo eta EMAKUMEZKOAK 240 kilo:**

Jardunaldi bakarra jokatu da multzo bakarrean baina bi egunetan banatuta (Tiraldien erdiak maiatzaren 11an eta beste erdiak maiatzaren 18an). Maiatzaren 18an, tiraldi guztiak bukatu ondoren, lehen lau taldeen artean semifinalak eta finala jokatu dira.

### **➔ ABSOLUTUA MISTOA (280 kilo):**

Jardunaldi bakarra jokatu da eta multzo bakarrean (denak denen aurka). Puntu berdinketa egonez gero, taldeen falta kopuruak hartuko dira konturan eta berdinketak jarraituz gero, taldeen pisua

### **➔ 20 URTE AZPIKOAK (280 kilo):**

Hiru jardunaldi jokatu dira liga sistema bidez. Hiru jardunaldietako puntuen baturak erabakiko du azken sailkapena. Puntuen baturan berdinketarik badago, taldeen falta kopuruak hartuko dira konturan eta berdinketak jarraituz gero, taldeen pisua.

Txapelketa honetan 2005-2009 urteetan jaiotako gazteek hartu ahal izanen dute parte.

Salbuespen gisa, 2004an jaiotako kirolari bakar bat onartuko da taldea osatzeko.

### **➔ KADETEAK (280 kilo):**

Bi jardunaldi jokatu dira liga sistema bidez. Bi jardunaldietako puntuen baturak erabakiko du azken sailkapena. Puntuen baturan berdinketarik badago, taldeen falta kopuruak hartuko dira konturan eta berdinketak jarraituz gero, taldeen pisua.